



Zer dira zuhaitza eta basoa?

Zuhaitzak basoan dituen funtzioak

I- Baso-ekosistemaren kontzeptua

Lehen ikusi dugun bezala, zuhaitzak ez dira beti gai izaten euren kabuz ugaltzeko, eta horregatik behar dute beste zuhaitz batzuk hurbil egotea. **Zuhaitzen multzo handi horiek baso bat osatzen dute.** Basoetan **zuhaitzak** daude, baina baita **katagorriak, zizareak, erleak, basurdeak, beldarrak, saguzarrak, txoritxoak, beleak, zizak...** ere.

Basoan bizi diren izakien zerrenda luzea eta askotarikoa da, eta horregatik hitz egiten da **biodibertsitateaz** (izaki bizidunen dibertsitatea).

Organismo horiek guztiak **espazio berean** bizi dira elkarrekin, eta horregatik elkarreraginean aritzen dira etengabe (ikasleek ikasgela batean egiten duten bezala). Basoko elkarreragin nagusiak **harrapakaritza** (azeri batek urtxintxa bat jaten du) edo **belar-jatea** (beldar batek hosto bat jaten du) dira.

Orduan kategoria hauek agertzen dira: **ekoizle primarioak** (landare-materia ekoizten duten zuhaitzak); **kontsumitzaile primarioak**

(landare-materiaz elikatzen diren izaki bizidunak); eta **kontsumitzaile sekundarioak** (kontsumitzaile primarioz elikatzen diren izaki bizidunak, hau da, beste animalia batzuk jaten dituztenak). Kontsumitzaileen elkarreragin hauek **elkakate bat edo sare trofiko bat** osatzen dute.



Basoko biodibertsitatea



Ekosistema honela definitzen dugu: **bai euren artean (harrapakariak/belarjaleak) eta bai euren ingurunearekin, lurzorurekin eta atmosferarekin (animalien arnasketa, lurzoruko ura sustraietatik xurgatzea) elkarreraginean aritzen diren izaki bizidunen multzoa.**



Zer dira zuhaitza eta basoa?
Zuhaitzak basoan dituen funtzioak

II- Basoaren garrantzia higaduraren kontrolean eta uraren kudeaketan

Euria onuragarria izaten da zuhaitzentzat, baina **euri gogorak** arriskutsuak izan daitezke, **luizi** mardulak (lupetz jario handiak) sortzen dituztelako; horri **lurzoruaren higadura** deitzen diogu. Lupetz-korrante horiek izaki bizidunen **habitat naturala suntsitzen dute** eta haien heriotza ere ekar dezakete.



Animalia eta intsektu ugari habitat bat eta baliabideak eskaintzeaz gain, **basoak higadura-fenomeno horietatik babesten du lurzorua**. Lurzoruan dagoen **sustrai kantitate handiak** ahalbidetzen du **lurra bere lekuan mantentzea**; izan ere, sustraiek lurzorua atxikitzen duen sare erraldoi bat bezala funtzionatzen dute. Egitura moduan funtzionatzeaz gain, **sustraiak ura xurgatzen dute**.



Photographie : Pierre Thomas